

"GUERNICA" GERNIKA'RA

OIARTZUNAK

Noizean bein entzuten dogu eskari orren oiartzuna gure artean, Gernika gai dala egin zan lauki margotu eder ori Gernika'ra ekartekoa. Bear ba da orretarako egin zan lenengo eskaria, orain ogei bat urte dirala AGUR aldizkarian egin genduan, baiña orduan ez eban izan oiartzun aundirik.

Arrezkero noizean bein entzuten da olako eskariren bat. Azkenengo egin dauana, oraintsu il dan Roig idazle Katalunya'tarra izan da.

PICASSO'REN LANIK EDERRENETARIKOA

Picasso margolari ospetsuak egin eban lauki eder ori, ez bera abertzalea edo euskalzalea izan zalako, España'ko Erkalak orduan agiri zan gudari buruz zerbait egiteko eskatu eutsolako baiño.

Berari, Gernika austua izan zan egunak zirala-ko, jazokizun negargarri ori ikur lez agertzea bururatu jakon.

Eskertzeko gauzea da.

LAUKIAREN ELBURUA

Olako lan aundi bat egiten danean, elburua ez da bakarra izaten. Picasso'k be, antza dagoanez elburu bat baiño geiago izango eban: Erkalaren alde agertu, bakearen alde jokatu, erri zapalduaren egoerea salatu... baiña ez dakiguna da Euskelerira izan ete eban gogoan margotze ori egin ebanean.

Baietz esan lei, laukian agertzen dan irudirik aundiena ta agiriena giza-itxurazko zezena, Euskalerri sendoaren irudi dala esaten dabelako, margo-lanen aztertzaileak.

Ez dogu aiztu bear, laukia España'tarrak agindua eta España'tarrentzat egiña dala.

Ba-dago orduan Gernika'ra ekartea eskatzeko oiñarririk? España'tarrentzat eurentzat bai,

Gernika España dala uste dabelako. Ez ainbeste bear ba'da, euskaldunentzat, abertzaletasuna beste bide batetik doalako. Azken baten emon bear dabenak España'tarrak dira eta artu bear dogunak Euskaldunak.

Beste alde batetik, Picasso'k bere elburuetarako Gernika'ren irudia eta uri onetan izandako zapalkuntza artu eban ezkerro, orrek be eskubide batzuk sortzen dauz gerkikarrengan.

GAIA

Laukiaren gaia, esandakoetan agertzen dan lez, gudea alboratzea eta bakea goratzea da. Gai ori agertzeko ezaugarri lez, erri austu bat agertzen da, zori txarrez Gernika izan zan egoera orretan egoana.

ZATIAK ETA TANKERA

Laukia ez da oso-osoan irudi-girokoa edo "figuratiboa", urrago dago kubismotik eta margo-tze utsetik edo abstraktotik. Neurritzit edo jeometri-irudiak daukoz, batez be iruki zokodia: Iru "tringulo" daukoz danaren azpian.

Baiña ez da osoan tankera orretakoa be, irudiak be agertzen dira: Giza-irudizko zezena, etxea erreten, emakumea umea eskuetan dauala iges, eguzkia...

ERTI-BALIOA

Picasso'ren laukiak gaur balio aundikoak dira, eta erti-aztertzaileak diñoenez, lauki au Picasso'ren lan guztien artean ederrenetarikoa eta baliorik geien daukenen artean sartu-bearrekoa da.

Datorrela ba Guernica Gernika'ra.

MARTIN'EK